



## Europar Konferentzia

# Mendietatik datorren kalitatea: pertsona eta lurraldeentzako oparotasuna

## IX Mendiko Konbentzio Europarra

2014ko Urriak 22-24, Euskalduna Jauregia, Bilbo, Euskal Herria

\*\*\*

## Kontzeptu oharra eta behin-behineko egitaraua

### KONTESTUA

IX Mendiko Konbentzio Europarra ondorengo ezaugarriengatik bereizten den testuinguru zehatz batean emango da:

- **“MENDIKO PRODUKTUA” AHUTAZKO KALITATE AIPAMENA:** 1151/2012 erregulazioa 2013ko urtarrilaren 3an sartu zen indarrean, “mendiko produktua” ahutazko kalitate aipamena EBko lurralde osoan sartuz. Baldintza zehatzak deskribatzen dituen egintza 2014ko udaberrian onartuko da seguruena. Testuinguru honetan, gaur egun hausnarketa sakon baten beharra dago lurraldean bertan inplementazioa nola egin daitekeen ikusteko. 2013ko azaroaren 6ko Euromontanako Batzar Orokorrak inplementazio hau mendietako balio-kateetan parte hartzen duten eragileek osaturiko forum/sare/cluster baten esku uztea eta sare honek progresiboki bere eraikuntzarako beharrezko ekintzak aurrera eramatea hartu zuen erabaki egokitzat. Sare hau Bilboko IX Mendiko Konbentzio Europarrean aurkeztuko da.
- **2014-2020 DENBORALDIAN INDARREAN SARTZEN DIREN EUROPAR POLITIKA BERRIAK:** 2014-2020 denboraldiko politika europar berriak ez dira 2014 erdialderarte inplementatzen hasiko, bereziki Nekazal Politika Bateratua (NPB) eta Eskualde Politika. Egoera honek kontestu paregabe bat sortzen du politika berrien inguruko aukeren berri emateko eta proiektu komunengatik inguruko kooperazioari buruz hausnartzeko. Konferentziaren bidez, Nekazal Politika Komunikatzen mendiko produktuen balio-kate eta produkzio sistemiei nola lagundu diezaiokeen aztertuko dugu.
- **LURRALDE GARAPENA LEHEN PLANOAN:** Toki Ekintzako Taldeak lurralde garapenerako beraien estrategiak garatzen egongo dira 2014. urtean zehar, Toki Ekintzako Talde desberdinen artean hartu-emanak antolatzeke momentu egokia izanik. Truke hauetan Toki Ekintzako Taldeek, LEADER/CLLDaren testuinguruan, lurralde menditsuetako erronkak nola bideratu ditzatekeen eztabaidatu dezakete, LEADER programa mendiko produktuen promoziorako nola erabili daitekeen aztertzeke bereziki.





- **NEKAZARITZA FAMILIARRA:** 2014. urtea nekazaritza familiarren urte internazionala da. Kontutan harturik mendiko nekazaritza proportzio handi batean nekazaritza familiarra dela, mendiko nekazaritzaren familia dimentsio hori aztertzea interesgarria izango litzateke, FAOren Mendien Aldeko Aliantzaren eta Munduko Landagunearen ekintzekin lotuz.
- **2015KO MUNDU AZOKA MILANEN: ELIKAGAIK ELEMENTU NAGUSITZAT:** Mendiko Konbentzio Europarretik 7 hilabetetara, “Planeta elikatuz, bizitzarako energia” izeneko mundo azoka hasiko da (Milanen, 2015ko maiatzetik urrira). Bilboko konferentzia mundo azkorarako ekarpenak aktiboki prestatzeko aukera izango da.



## HELBURUAK

- **Aztertu nola lagundu diezaioketen europar politika berriek, bereziki Nekazal Politika Bateratuak** balio-kateen egituraketa eta lurraldeen balorizazioari, marka eta etiketen bidez, lurralde espezifiko eta mendi dimentsioa balioztatuz (inbertsioa, kooperazioa, promozioa, kalitatearen hobekuntza, berrikuntza...): europar testuinguruak eskaintzen dituen aukeren eta erabiltzen diren (edo ez) programa ezberdinen analisia eskualde eta herrialde desberdinetan.
- **Mendietako Tokiko Ekintza Taldeen arteko ideien elkartrukeak erraztu**, lurralde garapeneko estrategien prestakuntza alderatu eta hobetu dezaten, lurralde marketinari eta mendiko produktuen balioztatpenari dagokionez: ebaluazio konparatiboa, ekintza interesgarrien aurkezpena...
- **Miatu noraino balioztatu daitekeen positiboki mendiko nekazaritzan familia dimentsioa** etiketatze eta sustapenerako zerbitzu eta produktuetan.
- **“Planeta elikatuz bizitzarako energia” 2015 Mundu azokarako ekarpena prestatu:** nola erantzun diezaiekete mendiko kalitatezko produkzioek etorkizuneko elikadura segurtasunaren erronkei?

## ENTZULERIA

- **Mendietako balio-kateetako aktoreak, landatik kontsumitzaileeraino:**
  - Mendiko nekazariak eta nekazari elkarteak
  - Mendiko balio-kateetan parte hartzen duten beste aktore batzuk: prozesadoreak, banatzaileak, logistika arloko jendea, zertifikazio erakundeak, marka kudeatzaileak, mendialdeetako jatetxe eta hotelak, sukaldariak;
  - Basozainak eta baso-kateko aktoreak (lehen eta bigarren mailako prozesadoreak);
  - Teknikariak eta nekazal erakunde eta aholkulartiza zerbitzu edo industria, turismo eta nekazaritzarekin loturiko komertzio ganberak;





- Landa-negozio eta nekazaritzari loturiko populazioa, bereziki sektore turistikoan;
- **Garapen agentziak, parkeak eta beste garapen talde batzuk;**
- **Mendiko Tokiko Ekintza Taldeak (LEADER);**
- **Unibertsitateak, eta irakaskuntza berritzailean parte hartzen duten institutu tekniko eta irakaskuntza erakundeak.**


## FORMATUA

Ekitaldia ikaskuntza aktibora zuzenduko da, konferentziaren emaitzak oinarritik landuz. Partehartzaileen partehartzea maximizatzeko antolatuko da. Batzartzeko modu berritzaileak aukeratuko dira, bereziki sesio paraleloetarako, kontribuzio aktiboetarako denbora nahikoa egon dadin. Atsedendiak behar bezain luzeak izango dira interakzioa bultzatzeko, “interakzio forum” bezala antolatutako gune batean. Era berean, gela bat erreserbatuko da partehartzaileen interakzio eta kolaborazio librerako arratsaldeko sesioaren amaieran.

## BEHIN-BEHINEKO EGITARUA

### Egitarua begirada batez


Goiza 23/10  
**Helburuak, erronkak, erantzun politikoa eta zientzia**



Arratsaldea 23/10  
**Mendiko balio-kateen garapenaren 6 dimentsio**



24/10  
**Bidea eginez Etorkizuna sortuz**



Konferentzia hau Europar Komisioko kofinantzatze proiektuaren bidez antolatzen da. **NPB berria : Aukeraz beteriko mendiak »**



## BEHIN-BEHINEKO EGITARAUA

### *Egitaraua xehetasunez*

### 1. Eguna – Asteazkena, 2014ko urriaren 22a

4 bisita tekniko gai honen inguruan: **“Nola laguntzen du eta lagundu dezake NPBak Euskal Herriko nekazal balio-kateen eraginkortasun eta kalitatearen garapenean?”**

1. Bisita teknikoa: **Getaria-Donostia**. 9:00h-20:00h. Hizkuntzak: ES-EN
2. Bisita teknikoa : **Urdaibai Biosferaren erreserba**. 9:00h-17:00h. Hizkuntzak: ES-EN
3. Bisita teknikoa: **Araba, probintzia menditsua**. 9:00h- 17:00h. Hizkuntzak: ES-FR
4. Bisita teknikoa: **Arabar Errioxa**. 9:00h- 19:00h. Hizkuntzak: ES-FR

### 2. Eguna – Osteguna, 2014ko Urriaren 23a

8.00 Ongietorria eta izen-ematea

*Kazetari profesional batek arindutako osoko bilkura*

09.15 **Inaugurazio ofiziala**

#### 1. Saioa: **Mendiko balio-kateak 2014-2020 denboraldiko europar politiketan**

09.50 Juanan Gutiérrez Lazpita, Euromontanako presidentea **“Kalitatea mendiko lurraldeen gidari: mendiko elikagaien karta europarra errealitate bihurtuz eta mendiko ekonomia inspiratuz”**

10.10 **“Nekazal Politika Bateratu berria: etorkizun oparako harraminta kaxa mendiko balio-kateentzat”** Jerzy Plewa, Europar Komisioko Nekazaritza Zuzendaritza Orokorreko zuzendari nagusia.

10.40 **“Asmo handiko politika nazionala mendiko balio-kateentzat”** Nekazaritzarako Italiar Ministroa Europar Kontseiluko Presidente bezala (*konfirmatzeke*)

11.00 **“Mendiko balio-kateak eskualde menditsuen garapenerako estrategiaren bihotzean”** Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Sailburuordea

*11.20 Kaferako etenaldia eta pintxoak, elkarrekintzarako gunea*





## 2. Saioa: Nazioarteko ekimenak eta ekimen akademikoak: Zergatik dira garrantzitsuak mendiko balio-kateak?

11.50 “Produktuen sustapena: nekazaritza familiarra mendian mantentzeko nazioarteko erronka” Mendien aldeko Aliantza FAO /Munduko Landagunea (*konfirmatzeke*)

12.20 “Lurralde garapena produktuen marketinaren bidez: teknikaren egoera” Ikertzaile bat gaia aurkeztuz eta interes zientifikoko elementuak emanez.

13.00-14.30 *Bazkaria eta interakzioa*

## 3. Saioa: Mendiko balio-kateen garapena: Nola erantzun diezaioke NPBak balio-kateen erronka eta aukerei?

14.30-18.00 → Tailerrak

1. **BERRIKUNTZA- Mendiko produktuak, lurraldeak eta berrikuntza:** produktu berriak, prozesu berriak, erakunde berriak: Nola sor dezakete berrikuntza mendiko balio-kateek? Zein behar dituzte? NPBen berrikuntzarako neurriak (EIP AGRI, talde operatiboak, kooperazioa, inbertsioak...) *Hizkuntzak: EN-FR*
2. **LURRALDE GARAPENA- Produktu eta lurraldeen promozio gurutzatua:** lurralde marka ezberdinen ebaluazio konparatiboa. Zergatik eta nola funtzionatzen dute? FEADER proiektu arrakastatsuen adibideak. Nola finantzia ditzateke europar politikek era honetako ikuspegiak? Eskualde eta tokiko aginteen, babestutako inguruneen eta LEADER taldeen papera. *Hizkuntzak: ES-FR*
3. **ERAGIN SOZIO-EKONOMIKOA: Mendiko balio-kateak, diru-sarreraren eragitea eta lana:** Nola maximiza genezake mendiko produktuen garapenaren zeharkako eta zuzeneko eragin sozio-ekonomikoa? Nola garatzen eta baldintzatzen du lana mendietako enpresen egitura ekonomikoak? Benetako adibideak, zifrak eta egokituriko estrategiak. *Hizkuntzak: ES-EN*

16.00-16.30 – *Tailer aldaketa eta kaferako atsedenaldia*

4. **INGURUMENA ETA ONDAREA- Mendiko produktuak eta ingurumen eta ondarearen babesa:** ondasun publikoen balorizazioa etiketazioaren bitartez: Nola sortu ditzakegu nekazal eta ingurumen neurrien, nekazaritza ekologikoaren eta produktuen komertzializazioaren arteko sinergiak? Nola sustatu ingurumenarekiko errespetudun mendiko produktuen izaera? Nola ekarri balio-erantsia ondarea balioarazten duten produktuei? *Hizkuntzak: EN-FR*
5. **ESTRATEGIA KOMERTZIALAK- Kontsumitzaileen arreta erakarri industria lehiakor batetan: marketin estrategia desberdinen konparaketa-** Zein ezaugarri sustatu: ingurumenekoak, sozialak, kalitatezkoak? Zein estrategia izango litzateke egokiena hartzaile talde desberdinen eta eskaintzaren egituraren arabera? Kate motzen eta luzeen arteko desberdintasunak? Aipamen geografiko, lurralde-marka, marka pribatu eta “mendiko produktua” hautazko





kalitate aipamenaren arteko harremanak. Merkaturatzea sustatzen duten NPbaren neurriak.  
*Hizkuntzak: ES-EN*

6. **TRESNAK – Kalitatearen hobekuntza, trazabilitatea eta kontrola:** Zein instrumentu modernok bermatu dezakete kalitatea katearen hasieratik amaierara? Zein kostu eta nola optimiza ditzakegu? Trazabilitate sistemen finantziazioa baimentzen duten NPbaren neurriak. *Hizkuntzak: ES-FR*

18.00 – 18.45 – Laburpena: Tailer bakoitzeko 5 mezu nagusien aurkezpena

18.45 – Bigarren egunaren bukaera

19.00 – Jarduera turistikoa Bilbon

21.00 – Afaria eta interakzioa

### 3. Eguna – Ostirala, 2014ko Urriak 24

#### 4. Saioa: Elkarrekintza eta mendiko kate dinamikoak garatzeko estrategiak

9.00-11.00 – 3 lan saio elkarlanean:

- **Elkarlanerako sareen sorkundearen hobekuntza eta kooperazioa mendiko balio-kateetako aktoreen artean** (entzuleria: balio-kateetako partaideak): Zergatik eta nola? Estatu mailan edo Europa mailan? Akzio-plan zehatz baten definizioa, arduren banaketa Euromontanako bazkideen artean eta babes neurri interesgarrien identifikazioa. *Metodologia: sarrera labor bat herrialdeetako baten eskutik fitxetan jasotako informazioan oinarrituz. Lan talde txikietan europar mailako eta mendikate bakoitzeko akzio planaren garapena. Hizkuntzak: ES-FR*
- **Kateen eta turismoaren artean sinergia hobeak garatu** (entzuleria: negozio turistikoak, autoritate politikoak, babesturiko guneetako ordezkariak...) Nola atera lurraldeen eta produktuen sustapenaren elkarrekiko efektu positiboen etekina, produktuen komertzializazioa hobetu eta mendira jende gehiago erakartzeko? Landa-turismoaren eta nekazal-turismoaren papera. Enoturismoarekin eta gastronomiarekin erlasionaturiko ekimenak. *Metodologia: hiru aurkezpen puntu printzipalen inguruko eztabaida batez jarraituz. Hizkuntzak: ES-EN*
- **Mendiko produktuen garapenerako prozesu egokiak integratuko dituzten tokiko garapen estrategiak prestatu** (entzuleria: Mendiko Tokiko Ekintza Taldeak eta autoritate politikoak): aurretiko tokiko garapenerako estrategietako mendiko produktuen promoziorako adibide positiboen aurkezpena. Elkartruke aktibo eta partehartzaileak partehartzaileen artean, hastear dagoen denboraldirako beraien proiektuei buruz: nola erabiliko dute lurralde garapenerako eta baliteke beste europar mailako politika batzuen diru publikoa? Eta CLLDak sustaturiko lurralde garapenerako inbertsioak? *Metodologia: LEADER ekimen interesgarrien aurkezpena herrialde desberdinen eskutik (5 minutu hizlariko), ondoren, LEADERen*





testuinguruan produktuen sustapenerako estrategia eta proiektuak nola garatu daitezkeen eztabaidatuz. Hizkuntzak: EN-FR- ES

11.00 – 11.30 Kaferako atsedenaldia

## 5. Saioa: Mendiko balio-kateen garapenari bidea irekiz

11.30 –4. Saioko txostenak:

- **Mendiko balio-kateetako aktoreen arteko sarearen sorkuntzarako egin behar diren ekimenak jasotzen dituen akzio plana: ondorio nagusiak**
- **Balio-kateen eta turismoaren arteko sinergiak: ondorio nagusiak**
- **LEADER taldeen arteko eztabaidako ondorio nagusiak**

12.00- Arduradun politikoen eta autoritate kudeatzaileen erreakzioa inizatiba hauek europar politika berrien testuinguruan, nola lagunduko dituzten azalduz. Bereziki LEADER/CLLD programaren bitartez: 4-5 herrialdetako autoritate kudeatzaileekin eztabaida.


## 13.00- Ekitaldiaren itxiera Juanan Gutierrez eta Eusko Jaurlaritzaren ordezkariaren eskutik

Bazkaria

14.00 → 16.00 Partaideen arteko elkarlan librea akzio-planen garapena sakontzeko.

## PRESTATZE-JARDUERAK

Mendiko Konbentzio Europarra, Europar Komisioak kofinantzaturiko “NPB berria-aukeraz beteriko mendiak” izeneko informazio proiektu integratuaren parte da.



Konferentzia hau Europar Komisioak kofinantzatzen du, « NPB berria : Aukeraz beteriko mendiak » komunikazio proiektuaren barnean.



### ***“NPB berria: aukeraz beteriko mendiak” informazio kanpainaren prozesua***

Proiektu honen testuinguruan, Euromontanak eta bere sareak prestatze-jarduera desberdinak burutuko dituzte, hala nola:

- **Liburuxka espezifikoa eta web orrialde baten sorrera** NPB berriaren eta mendiko lurraldeei eskeintzen dizkion aukeren inguruan informatzeko.
- **Nazio mailako bost mintegi** mendiko eragile nazionalen NPB berriari buruz informatu eta konferentzia europarrerako kontribuzioak prestatzeko.
- **Jarraipen eta diseminazio jarduerak**

### **ONDORIO NAGUSIAK**

- Partehartzaileek **NPBari eta beste herrialde batzuetako antzerako politikei buruz duten jakintza eta sentiberatasuna hobetu**, bereziki mendiko balio-kateak hobeto egituratzen laguntzen dituzten politikei buruz..
- **Mendiko balio-kateen forum/sare/cluster** baten abiaraztea.
- Eskuliburu bat:
  - **Gaikako informazioa jasotzen duten 6 fitxa**, mendiko balio-kateen garapena baldintzatzen duten sei dimentsio nagusei buruz.
  - **3 akzio- plan zehatz** sarean elkarlana eta kooperazioa nola hobetu, balio-kate eta turismoaren arteko sinergiak nola landu eta LEADER programa mendiko produktuak sustatzeko nola erabili azalduz.

